

**NIRE FILOSOFIAREN LABURPEN BAT**

Hasten naiz demostratzen nola materialki, a posteriori iker-tzea ikasteko modu bakarra dena, enpirikoki, ezinezkoa dela jakintza unibertsala, baina bai esperientzia handitzea, “mun-dua” edukitzeraino, eta egoten dira holakoak, analfabetoak mundu asko dutenak. Beraz, dena, ezagutza dena, hobe dai-tekeena da, kontraetsenpluak denari aurkitzen ahal zaizkio. Baina historian badago pertsonaia bat, Jesus, badezakeena signoak egin, erakusten dutenak jakintza unibertsala baduela, gaindiezina dena, eta ez hori bakarrik, a priori ezagutzea ere baduela, eskarmenturik eduki gabe badakiela dena, eta deli-beratzen ere ahal du libreki a priori. Eta hori egiten ahal due-nari Jainkoa esaten zaio, Jauna maiuskulaz. Nire Jauna, gure Jauna, ahalguztiduna, eternoa, gu baino lehen dena, kosmos material hau baino lehen dena. Izan ere, beronen kreatzailea da. Gure maitasunez gizon egina, pertsonaia historikoa. Abrahamen askaziko naziokoa, orain nazio denok hartzen gai-tuena. Jesus barik ez genuke salbazioaren historia unibertsal-lik. Hasia bada ere aukeratutako gizon batekin. Diskretuki nonbait han.

Ondorio horretara iristeko urrats batzuk egin ditut.

Behin, orain asko ez dela, nire lehen liburua (gure jakin-tzaren mugak) irakurri nuen berriro, lehen partea, demostra-tzen duena ezinezkoa dela jakintza unibertsala materialis-moan, ezta ere filosofia materialean. Tara bat duela materiak,

materiazkoak, halako bekatu jatorrizkoaren modukoa, igarotzea dela, ezin ezer unibertsala izan materialismoan. Eta sugeak Evari erran ziona faltsua da, materialismoa taraduna baita, eta materialismora eroan zuen. Gure jakintza aurreratu daiteke infinitua potentzian, baina sekula ezin da aktoan. Hara hor tara, igarotzea delako.

Eta gero Kantek egin zuen galdera, posible ote diren juizio sintetikoak a priori, ezetz badio ere, hori da Jesus ignoratu egiten duelako, ahaztua akaso du Haren figura historikoa. Zeren pertsonaia historiko Jesusen signoak estudiantuz, analizatuz, bada posible ondorioztatzea ezagutza unibertsalaren esistentzia erreala hori egiten duenaren baitan. Eta fedea amentatzen zitzaidala sentitu nuen, pozaldia sentitu nuen, lan bikaina egin nuela ia-ia konturatu gabe, jakin gabe. Jakin gabe hortik aparte, kontzentratuta. Nik ez dakit filosofo ona naizen, baina mundu gutxi dudala badakit, teoriekin buruan bizi naiz gehiena. Mundu gutxi eta liburu asko. Mundu gutxi, gaztetan gauza batzuk munduaz ikasiak eduki arren.

Esatea jakintza unibertsala ezinezkoa dela filosofia materiallean, hori ez da eszeptizismoa, beste afirmazio batzuk egin behar dira horretarako. Beraz sentimendu fedezkoa handitu egin zitzaidan egiazki. Sinesmena. Baina ez dut pinua itsasoan landatu, hainbestearino ere ez naiz iritsi. Nik erran beharko dut, Jesus lagun, behargin pobrea izan naizela, nire lana egin dudala, ez besterik. Dizipulu baten moduan. Eta eskatzen diot Jesusi hori utzi diezadala egiazki erraten. Erran nahiko duelako salbatu naizela.

Gu sortzean tabula rasa gara, ignoratu egiten dugu dena, guztia. Gure ikasteko modua induktiboa da, empirikoa ere. Predikatuen logikan unibertsal bihurtzeko pausuan, restriktzio bat salbatu behar da, eta logika formala izanik, forma objektu baten esentzia izanik, unibertsala, badaude etsenpluak erakusten dutenak nola ikasten ahal den batzuetan, jolas bat bezala-

koa da, kuantifikatzaile unibertsala sartzea gure eragiketetan (famatua da triangeluaren kasua). Baina horrek ez du balio nik bilatzen dudanerako. Ezagutza unibertsala beste gauza bat da. Ez da giza hizkuntza humano, kosmos honetakoa, baten gramatika geldia (ezinezkoa dena kosmos honetan).

Hala ere nik ondorioztatu nuen gerra ez zela fenomeno unibertsala, eta bai kuantifikatzaile partikularrean dagoela haren lekua aurrera egin ezinik zientzia perfektuan. Ikerketa interesanteak egiten nituen, nahiz eta eszeptizismoarekin mugan teorizatzen nuen. Eta hori da egiaren hazi oso interesanteak dituelako eszeptizismoak. Eta baita tranpak ere (Sixto Empirico, Montaigne). Eta tranpengatik asko arduratua ibili naiz, ez ote naizen jausi. Sinisten dudan arren nire filosofia kristauan. Ez dudan arren madarikatua, gaiztoa, izatea nahi. Eta gizonen aurrean fama hori ipintzen badidate, Jesus, zure aurrean ez dadila hala izan. Ez dadila demostragarria izan nire fama txarra, hain zuzen.

Nire lehen liburuan perla bat topatu nuen, baina lokatzez zikinduta zegoen eta lurrez, hizkunta gaixo batean. Garbituz gero urarekin perla hura preziatua litzateke, harribitxia, kondenatua egotetik neure salbazioa topatu nuen. Ezin dut a priori hori aseguratu, baina Biblian badira a priori halakoak erraten. Beraz, san Pauloren estiloa imitatuz, salbatua izan naiz denboren hasteetatik. Eta dena izan ei zen nire lana (Jainkoaren lana zena nik neure egin nuen, Padre Juanek ziotan bezala: ni ohartu gabe Jainkoak eroan ninduen Padre Juanengana, sinesmen katolikora ekarri ninduen), eta pentsatzen nuen nire lehen liburuakin nire ikerketak amaitu egiten zirela. Eta egiazki, euskaraz zegoelako, oraindik ondu gabea, hura zen nire lehen eta azken lana, pixka bat arreglatu behar bazen ere. Eta jarraitu badut idazten, gustatzen zaidalako da alde batetik, baina baita ere nire lehen lana desagertua izan ez dedin, beldurra nuen euskarazkoa desagertzen dagoelako, ignoratua geratzen. Eta etsai asko ditu fede Katolikoak Euskal

Herrian, eta munduan. Baina lagunak ere definitiboak ditu, gaindiezinak.

Insistitzen epailerik gaiztoenak ere niri justizia egingo lida-ke, Jesusek zioen moduan. Eta, hil arte jarraitu behar dut neure filosofia adierazten, adierazten. Hori da nire lana, nire mundualdian, lan horrekin bere esanahia hartzen du nire bizitzak. Ea aurkitzen dudan modu perfektua, (Goethek zioen moduan) adierazpen osoa, nire filosofia kristaua adierazteko. Deabruari, etsaiei, beldur barik. Hori bai lingua ez hegemoniko batean, ni zuhurra bainaiz honetan, eta euskaltzalea. Disparateez ez da kasik inor ohartzen, nahiz eta jakingo den bere momentuan. Eta ezta aziertoez ere, hizkuntza gizajoa. Ahalegindu naiz behintzat.

Eta harribitxia dut. Nik aurkitua. Eta dena saldu dut. Desapego ikaragarria landu dut urteen buruz. Eta dagoeneko nirea da “perla” hori dagoen lurraldea. Eta ondo babestua dago nire altxorra. Mundu material honetakoei ez zaie interesatzen, go-raipatu ordez iraindu egiten naute. Dirurik ez da. Dirurik ez du ematen. Beste motatako aberastasuna da hori. Eta Biblian badut irakurria nonbait ezen bakoitzari emanen zaiola eskatzen duena. Perspektiba horretatik ematen du juiziorik ere ez dela izango, baina ez, hobe hauxe Jesusi jarraituz, bakoitzari egingo zaio juizioa halakoa ezen nahi duena merezikiko duen, eta emanen zaio hori. Gaur egun infernua askok nahiago dute, adibidez, eta hori da asko kritika egitearren. Eta Jesus da azken egunean epailea izango dena, eskrituren arabera, eta ahal du nahasia pixka bat dihardudana egin argiro, jestu guttiz ere. Justizia perfektuaz, eta miserikordia handiaz.

Bat baino gehiago damutuko da infernura iristean. Danteren moduan hango atean hauxe egongo da ipinita: ez dago atzera bueltarik.

Eta Basarri handiak erraten zuen moduan, lagun jatorrez, hara hemen: hau etxerako!.

Bale.

Ohartxo bat: filosofia kristaua da kristauon ikusteko era, katekesietan erakusten dena, gaur egun neokatekesietan ere. Eta ni , logikatik hasita, horra iritsi naiz, ume batek errez hartzen duena. Baina ni saiatu naiz, neure neurrian, jakina, hori arrazoizkoa, arrazoizkoena, egiten. Misterioa bada ere dena, misterio santua. Bai, baina argumentatua. Misterio santuak esistitzen dira.

Nik ez dut ulertzen zergatik mundua. Nik ez dakit zergatik Jainkoa. Soilik dakit badirela. Ni ere naizen bezala. Eta esistitzen denaren logika bilatzen dut. Badakit Aita Zeruetakoa ez dela harrituta geratuko nirekin.

*Roman Garmendia*